

HIRU MUNSTROAK

Behin batean, Esteribarko herri txiki bateko etxerik zaharrenean hiru munstro bizi ziren. Munstorik alaiena Luzia deitzen zen eta pozik ibiltzen zen beti. Bigarrena Lili deitzen zen eta haserre biziaren ematen zuen ia egun osoa. Hirugarrena Josu deitzen zen eta gehienetan negarrez eta triste egoten ohi zen.

Egun eguzkitsu batean Luzia, Lili eta Josu herri ondoko mendira paseo bat ematera joan ziren. Etxera bueltatzen zirenean, bide ertzean, begietan orban borobil beltza zuen txakur jaio berri polit bat zegoela konturatu ziren. Lilik, Luziak eta Josuk, txakurra bakarrik zegoela ikusita, bere etxera eraman zuten. Etxera aliegatu zirenean, txakurrari izena jarri behar ziotela erabaki zuten.

- Ze izena jarriko diogu?- galdetu zuen Lilik.

- Begiak zikinak dituela ematen duenez, zergatik ez diogu Ikatx deitzen?- esan zuen Josuk.

- Ados nago!- erantzun zuten aldi berean Lili eta Luziak.

- Hemendik aurrera gure laguntxo Ikatx izango zara eta gurekin biziko zara- esan zuen Josuk.

Txakurrari izena jarri eta gero lotara joan ziren. Geroago Ikatx altxatu zen eta Josuren kaxa majikoa jan zuen eta hegoak atera zitzaizkion. Hori gertatutakoan

- guau guau! - esan zuen eta igo zen.

Gero berriz

-guau guau!- esan zuen eta jeitsi zen.

Geroago Lili,Luzia eta Josu altxatu ziren eta Ikatx ikusi zutenean esan zuten: hau magia da!!!

Hurrengo egunean Lili,Josu eta Luzia esnatu ziren eta ikusi zuten Josuren kaxa maxikoa ez zegoela.

-Non ote dago Josuren kaxa magikoa????-esan zuten denek batera

- Ikatzek atzo hegoak zituen, bera izan ahal da.

- Bueno orain ez dugu izango kaxa magikoa, baina izango dugu txakur polit eta magikoa!!!!!!- Eta denak pozik geratu ziren. Gainera jendea bere etxera joaten hasi zen txakur maxikoarengatik.

Bertamaria